



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 13a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko dirulaguntza handitzeko (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Sakanako garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, Nafarroarentzako tren-ereduaren zehaztapenari dagokionez. María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide diplomatiko guztiak bultza ditzan gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegune guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat presta dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendumarko bati buruzkoa, Gobernu Egokian oinarritua. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Nafarroako Gobernuak hezkuntzako mahai sektorialari aurkeztutako enplegu publikoko proposamena. Eledunen Bartzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen baitio Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkeztutako lan-eskaintza publikoaren deialdi-proposamena erretira dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Bigarren Gazteria Plana abian jartzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (13. or.).
- Galdera, prestazioen sisteman sartu diren mendeko moderatuentzako prestazioen balorazioa azkartzea dela-eta Gobernuak dauzkan aurreikuspenei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (13. or.).
- Galdera, osasungintzako langileei euskararen ezagutza dela-eta igorri zaien inkestari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak esparru publikoan eta hedabideetan jardunbide egokien kodeak sustatzeko eta horien arloko prestakuntza bultzatzeko, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, ingelesezko irakaskuntza-programa irakasten den ikastetxeetan familiek onurei eta zailtasunei buruzko iritzia eman dezaten Hezkuntza Departamentuak banatu duen idazkiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen Eremu Ureztagarriari buruz Kontuen Ganberak egin duen txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzia buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, “Volkswagenen iruzurra” deiturikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoan euskarazko 228 irakasle-lanpostu eta gaztelaniazko 92 deitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Sinboloei buruzko Legearen urraketak direla-eta Nafarroako Gobernuak ireki dituen espedientei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (19. or.).
- Galdera, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztailean arte irekitako espedientei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (21. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko azaroaren 4an hartutako erabakiaren bidez, ondoko foru lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea ondoko foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko".

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proiektua,
327.800 euroko kreditu-gehikuntza
ematen duena, Pablo Sarasate Funda-
zioaren funtzionamendu eta jarduera
gastuak, 2014-2015 denboraldiko
azken hiruhilekokoak, ordaintzeko
diru-laguntza handitzeko.**

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren xede nagusia musika gizartean zabaltzea da. Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Pablo Sarasatek 1879an sortutako Santa Cecilia Orkestran du jatorria. Nafarroako Gobernuak eta Sociedad de Conciertos Santa Cecilia elkarteak 1997an sortu zuten Pablo Sarasate Fundazioak kudeatzen du.

Nafarroako Gobernuak Pablo Sarasate Fundazioari azken urteotan egindako diru-ekarpena diru-laguntzak arautzen dituzten hitzarmenen bidez ezarri da, eta haren zenbatekoa kasuan kasuko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan "Pablo Sarasate Fundazioarekiko Hitzarmena. Funtzionamendu gastuak" izeneko kontu-sail izendunean jasotzen da.

Kontu-sail horretako aurrekontu kreditua behe-raka joan da, nabarmen: 2008an jasotako 4.900.400 euroko kopurua 3.700.000 eurora jaitsi zen 2012an. 2015ean Pablo Sarasate Fundazioari emandako diru-laguntza 3.650.000 eurokoa izan zen, eta kontu-sailean 72.200 euroko gerakina egon zen.

Pablo Sarasate Fundazioak 327.000 euro gehiagoko diru-laguntza behar du 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekoan izandako funtzionamendu eta jarduera gastuak ordaintzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 4. artikulua ezar-

tzen duenez, foru lege bidez arautuko dira Nafarroako aurrekontu orokorrak, eta horien aldaketak ere bai, kreditu bereziak edo kreditu-gehikuntzak emateari buruzkoak badira.

Esandako guztiagatik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu-gehikuntza bat eman dadin onestea, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

Artikulu bakarra. Kreditu-gehikuntza ematea.

1. 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematea onesten da, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

2. Kreditu-gehikuntza horren zenbatekoa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuko "Pablo Sarasate Fundazioarekiko Hitzarmena. Funtzionamendu gastuak" izeneko A20002 A2520 4309 335103 kontu-sailean aplikatuko da.

3. Aipatutako kreditu-gehikuntza 2015erako luzatutako 2012ko aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatuko da:

Kontu-sailaren kodea	Izena	Zenbatekoa
A20002 A2510 7609 334100	Kultur etxeak eta gizarte etxeak eraiki eta ekipatzea	253.000,00
A20000 A2000 2266 334102	Lehiaketak, topaketak eta bestelako ekitaldiak antolatzekeo gastuak	24.800,00
A20003 A2310 2050 333100	Ondasun higigarrien errentamendua	50.000,00
GUZTIRA		327.800,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Sakanako garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko jabeldura, Sakanako garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Miguel Garmendia Pérezek,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Sakanaren garapen ekonomikoak eta, horrenbestez, garapen sozialak —hor sartzen dira Arakilgo ibarra, Burunda eta Ergoiena— ahulezia-seinale nabarmenak erakusten ditu; izan ere, langabezia-tasa handia da eta enpresen inbertsio-maila jaitsi egin da. Bi faktore horiek heldu dira jarduera ekonomikoa eta soziala bultzatzen duten jarduera berriak ezartzeko erakargarritasunik eta pizgaririk ez egotetik.

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, Sakanaren garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

Iruñean, 2015eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Guzmán Miguel Garmendia Pérez

Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa, Nafarroarentzako tren-ereduaren zehaztapenari dagokionez.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren politika

orokorrari buruzkoa, Nafarroarentzako tren-ereduaren zehaztapenari dagokionez.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, jabeldura hau aurkezten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako trenbide sarearen modernizazioa eta Abiadura Handiko Trenaren proiektu-aldaketa direla-eta izan diren azken gertakariak, bai eta Nafarroarako tren-ereduari buruzko egungo zehaztugabetasunak ere, nolabaiteko zalantza eta kezka

eragin dizkigu eta eragin ditu gizartean. Horregatik aurkezten dugu ondoko:

Jabeldura, Garapen Ekonomikorako Departamentuaren politika orokorrari buruzkoa; zehazki, Nafarroarentzako tren-ereduaren zehaztapenari buruzkoa, nazioarteko zabalerara egokitzeari dagokionez, eta Nafarroan, Nafarroatik nahiz Nafarroaranzko salgaien nahiz bidaiarien garraioaren gaineko epe motz, ertain eta luzeko aurreikuspenei buruzkoa.

Iruñean, 2015eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da bide diplomatiko guztiak bultzatzen dituzten gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko, eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita bide diplomatiko guztiak bultzatzen dituzten gatazka-egoeran dauden herrialdeetan bakea lor dadin bilatzeko, eta Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, errefuxiatuen harrera, arreta eta integrazioari eta asilo eskubide-

ari buruzkoa, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan irailaren 29an Diputatuen Kongresuak aho batez onetsitako zuzenketan jasotzen den moduan, denok behartuta gaude premiaz, elkartzunez eta arduraz aurre egitera ACNUR-en arabera lau milioitik gora pertsonaren lekualdatzeak sorturiko krisi humanitario larria. Pertsona horiek beren sorterrietako gerratik eta izuarengandik ihesi doaz, eta segurtasun, askatasun eta giza eskubideekiko errespetu gune bat bilatzen dute Europan.

Exodo horren biktimen artean, haurrak dira babes handiagoa eskatzen dutenak harrerari eta integrazioari dagokienez. Kalkulatzen da 8.000 baino gehiago bakarrik eta beren familiengandik urrun daudela. Bizi duten tragediaz gain, kontuan hartu behar da hurrek kalteberatasun handiagoa dutela pertsonen trafikoa, lan behartua eta indarkeria eta esplotazio beste forma batzuk direla-eta; horregatik, babestuko dituen lehentasunezko eta berriazko arreta behar dute.

Herritarrek, erakundeek eta administrazio publikoek elkartzuna agertu eta eskatu dute, eta, halaber, eskaintza zintzoa egin dute, konponbidearen parte izateko. Zalantzarik gabe, gure herrialdean eta estatu guztietan badugu behartutako lekualdatzeen oroitzen.

Krisi horri aurre egiten laguntzeko betebeharrak etikoa dugu, orain eta izan daitezkeen beharrezkoen arabera. Hori dela eta, beharrezkoa da Europar Batasunaren ahaleginarekin bat egitea eta lan egitea estatu guztiek parte har dezaten nazioarteko babes-eskatzailen harrera eta integrazioan.

Erronka horrek eskatzen du Espainiako erakunde guztiek bat egitea: Estatuak, autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioek, errefuxiatuei eta herritarrei laguntzeko erakundeek eta, noski, talde politikoek. Denok izan behar dugu konponbidearen parte, integrazio prozesuak ahalgin bateratua eta iraunkorra beharko baitu.

Integrazioa lehenetsia da denontzat, eta aurrekontu publikoen euskarria beharrezkoa du gauzatu ahal izateko. Integrazio prozesuak berekin dakar neurri sorta zabal bat, lehenbiziko harreratik hasita, errefuxiatuak gizartean gainerako herritarren gisara moldatzeko autonomia-maila erdietsi arte, eta horrek eskatzen du askotariko beharrezkoen erantzutea, hala nola osasun eta hezkuntzakoak, orientabide soziala, laguntza psikologikoa, itzulpena eta interpretazioa eta aholkularitza juridikoa, alfabetizazioa, hizkuntzaren ikaskuntza eta testuingurutzeara, prestakuntza eta lan orientabidea, eta abar.

Errefuxiatuen dokumentazioak eta beren asilo eskaeren izapidetzeak, eskaera kopuruaren iguera dela-eta, ahalegin gehigarria dakar Administrazioarentzat; izan ere, jarraitu beharko du jada azkenaldian hartutako neurriak osatzen eta Asilo eta Aterpe Bulegoa hobetzen, plantillak indartzen eta baliabideak eta prestakuntza ematen.

Erabaki proposamena:

Azalduko dela eta, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Dauden bide diplomatiko guztiak bultzatzea eta beharrezkoak diren guztien ezarpena sustatzea erabakitaz jarduteko, bai Europar Batasunean bai Nazio Batuen Erakundeetan, gatazka egoeran dauden herrialdeak baretzeko ahaleginetan, hori baita pertsonen gaur egungo lekualdatze masiboaren jatorrian dagoen arazoa.

2. Europar Batasunean asilo-politika integral bat babestea. Europar Batasunak eskumenak izan behar ditu politika komun egiazko bat abian jartzeko, errefuxiatuen integrazioarako printzipioak eta laguntzak eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzak jasoko dituenak. Politika komun horrek finantza-baliabide nahikoak izan behar ditu, orain bizi duguna bezalako larrialdi egoeren aurrean Euro-

par Batasunak duen erantzuteko gaitasuna indartzeko.

3. Hirugarren herrialdeekiko elkarrizketa eta lankidetzaren indartzea, ikuspegi europar eta nazionaletik, errefuxiatuen arreta egokia ahalbidetzeko.

4. Pertsonen trafikoan aritzen diren erakunde kriminalen aurkako borroka sustatzea, Europolekiko lankidetzaren estuan, eta itunak sinatzea jatorrizko eta igarobideko herrialdeekin, gizaki-salerostetako sareak borrokatzeko.

5. Ahalik eta gardentasun handiena sustatzea Europar Batasunaren asilo, migrazio eta integrazioarako funtseko (FAMIN) baliabideen erabilerraz dagokionez.

6. Gatazka duten herrialdeekiko eta errefuxiatu gehien hartzen duten herrialdeekiko lankidetzaren osagarria. Eskualde horien garapen eta egonkortzerako laguntza ematea, arazoari errotik heltzeko mekanismo gisa.

7. Errefuxiatuen harrera- eta integrazio-beharrezkoen emandako erantzuna egokitzea heltzen diren pertsona kopuruetara eta birkokatze eta birfinkatzeari dagokionez Europar Batasunak adierazitakora, betiere horretarako sorturiko ministroarteko lantaldearen koordinaziopean eta autonomia erkidego eta toki entitateen parte-hartzearekin, beren eskumenen esparruan, Immigrazioaren Konferentzia Sektorialaren bitartez eta Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren arabera. Zehazki, ondoko xedeetarako:

a. Errefuxiatu eta asilo-eskatzailen eskura jarritzea beharrezkoak diren harrera-postuak, eskolatzeko-erraztasunak eta osasun- eta gizarte-laguntza egokiak.

b. Parte hartu ahalko duen lan boluntarioarako planak prestatzea, harrera-herrialdeko gizarteak errefuxiatuen integrazio-prozesua errazteko, hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan.

c. Laguntza ematea batez ere arreta berezia eskatzen duten adingabeei, batzuetan ez baitute heldu baten laguntzarik.

d. Integrazio egokia bermatzea errefuxiatuei, kontuan hartuta haien ezaugarriak eta autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako administrazioen ahalmena beren eskumeneko zerbitzuak emateko –herritarrentzat, oro har, baina baita ere errefuxiatuentzat–, finantzetarako mekanismo desberdinetatik abiatuta.

e. ACNUR-ek Espainian duen ordezkartzaren aholkularitza eta lankidetzaren kontuan hartzea, bai eta gobernuaren kanpoko erakundeena eta errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren espezializaturiko entitateena, eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektore osoarena ere.

f. Jarraitzea ahalegina egiten asilo-eskatzailen eta nazioarteko babesaren onuradunen harrera eta integrazioarako funtsak handitzeko, bai Europa mailan bai Estatu mailan, kontuan hartuta autonomia erkidegoek eta toki entitateek beren eskumenen esparruan nazioarteko babes-eskatzaileri laguntzeko garatzen dituzten jardueren babesa, haiek ematen dituzten zerbitzuak babestuta eta Asilo, Migrazio eta Integrazioarako Funtsaren baliabideak hobetuta.

8. Bermatzea Espainiara iristen den inori ez zaiola galaraziko nazioarteko babesa eskatzea, horretarako eskubidea badu: hori dela eta, jarraibideak eman behar dira "bero-beroan egindako itzulketak" izenez ezagutzen direnak ez egiteko; izan ere, gure ordenamendu juridikoa urratzeaz gain, galarazi egiten dute, de facto, gure herrialdera iristen direnek babes-eskaria egitea.

9. Araudia egokitzen jarraitzea, ahalik eta arienen, zuzentarauetara, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen erregelamendura eta arau osatzaileak.

garrietara, eta sartzea, kasua bada, errefuxiatuen iristea dela-eta Europar Batasuneko Kontseiluak duela gutxi onetsitako xedapenak beharrezko dituzten egokitzapenak. Horrek guztiak ziurtasun juridikoko marko bat osatu behar du, errefuxiatuen harrera eta integrazioa antolatzeke izapide burokratikoak arinduko dituen, pertsona horiek beste herrialde batzuetatik birkokatu edo birfinkatuak izan nahiz hasieratik gure herrialdean babesa eskatutakoak izan.

10. Gure herrialdera iristen diren asilo-eskatzaileri informazioa ematea eta bermatzea nazioarteko babesaren prozesurako sarbidea, haien erabakiak eta adierazpenak bideratzea asiloaren ikuspegi arduratsu, elkartasunezko eta integratzaile baterantz, eta desbideratze xenofobo, baztertzaila edota errefuxiatuak mehatxu gisa identifikatzekoak saihestea. Horrekin lotuta, sentibilizazio kanpaina bat jarriko du abian, Espainiako herritarrei zuzendua, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen –horien artean pertsona errefuxiatuak– arteko bizikidetzari buruzkoa, demokraziaren eta giza duintasunarekiko eta giza eskubideekiko errespetuaren ezinbesteko parte den aldetik, eta, halaber, jarrera arrazista edo xenofoboaren agerpena ekiditen ahaleginduko dena.

Iruñean, 2015eko azaroaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegunen guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Wi-Fia jar dezan liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi eta gaztegunen guztietan, bai eta Nafarroako Gobernuaren sareko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak liburutegi sare bat du, foru lurralde osoan banatuta dauden ehun bat liburutegikoa. Halaber, berrogeita hamar bat museo eta bilduma dauzka, eta beste horrenbeste ostatu, gaztegune eta kiroldegi.

Espazio publiko horien guztien ehuneko 20 inguruan soilik dago Internetera Wi-Fi bidez konektatzeko aukera –hau da, Interneteko sarerako sarbide harigabearen bidez–, eta horren bannaketa ausazkoa da; izan ere, ez da aurkitu inolako harremanik zerbitzu hori duten zentron eta halakorik ez dutenen artean, halako moduan non ageriko baldintza-desberdinkeria baitago zerbitzu beraren erabiltzaileen artean Nafarroako Foru Komunitateko puntu ezberdinetan.

Interneten erabilera-ohiturei buruzko azken azterlanek argi eta garbi diote ordenagailu finakoak nahiz ordenagailu eramangarriak baino gehiago

erabiltzen direla gailu eramangarriak –tabletak eta telefono adimentsuak–; horrenbestez, sarera hari bidez konektatu ahal izateak –zenbait tokitan dagoen aukera– ez dauka zentzurik, eta hari gabeko sarea da gaur egun konektatzeko modurik egokiena.

Gazte gehienek dituzte gailu eramangarriak –aldiz, ez daukate konexio konbentzionaleko ordenagailurik–, baina gehienek ez daukate datu mugikorren tarifarik; hortaz, Wi-Fi-a da mundura konektatzeko daukaten modu bakarra. Kontuan hartu behar da orobat adin horretakoak direla gehien erabiltzen dituztenak liburutegi publikoak, sare publikoko museoak, kiroldegiak, gazteguneak eta gainontzeko kultur, aisia eta kirol eremuak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Wi-Fi-a (Internet-sarerako sarbide harigabea) jar dezan Nafarroako Gobernua liburutegi publiko, sare publikoko museo, kiroldegi, gaztegune eta gainontzeko kultur, aisia eta kirol eremu guztietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 4an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko parlamentari María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Memoria Historikoaren Legea bete eta gara dezan eta erregimen frankistak eraildako pertsona guztien memoriaren eta errekonozimenduaren alde lan egin dezan

Zioen azalpena

Diputatuen Kongresuan onetsi berri diren estatuko aurrekontu orokorrek ezabatu egin dute 2016ko kontuetatik 2007ko urrian onetsitako Memoria Historikoaren Legea aplikatzeko diruesleipena.

Lege horrek, besteak beste, Gerra Zibilean eta diktaduran zehar jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen aldeko zenbait neurri ezarri zituen, baina orain hustuta eta indargabetuta gelditu da de facto, Alderdi Popularraren gehiengo absolutuarekin, aurrekontu-zuzkidurarik gabe utzi baitu.

Datu horiei kontrajarrita, deigarria da estatuko aurrekontu orokorrek Francisco Franco Fundazioarentzako 150.000 euroko diru-laguntza bat jasotzea.

Nafarroako gizarteak urteak daramatza lanean 36ko biktimen memoria berreskuratzeko. Lan hori, batik bat, senitartekoen kolektiboetara eta pertsona

askoren lan desinteresatuari esker egin da. Egungo Nafarroako Gobernuak ere hasia du bere ibilbidea Gerra Zibilean fusilatutako Gobernuaren 33 langileei egindako omenaldi ekitaldi batekin.

Halaber, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusi sortu berriak behin betiko bultzada emanen dio 36ko biktimen memoriaren, babesaren eta errekonozimenduaren aldeko lanari.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du kontusail bat ezar dezan, gutxienez ere 150.000 eurokoa, Memoria Historikoaren Legea garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Francisco Franco Fundazioarentzako diru-laguntza ken dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan Nafarroan 1936ko Altxamenduaren ondorioz eraildako pertsonen memoriaren eta errekonozimenduaren alde.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat presta dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendumarko bati buruzkoa, Gobernu Egokian oinarritua.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lege proiektu bat presta dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gai-

neko Erregelamendu-marko bati buruzkoa, Gobernu Egokian oinarritua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege proiektu bat presta dezan, O-NOZen egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendu-marko bati buruzkoa, Gobernu Onean oinarritua.

Osasungintza publikoak egun bizi dituen arazoaren parte bat aurrekontu-eskasiari zor zaio. Halere, beste arazo batzuk ere baditu, krisi ekonomikoa hasi aurrekoak. Argi dago gure osasun-sistemak hobetzeko tartea daukala; esate baterako, eragin-kortasunari, efizientziari, erabakiak hartzeko gardentasunari eta herritarrek berea den osasun-sisteman parte hartzeari dagokienez.

PSN-PSOeren ustez, gure osasun-sistemaren kalitatea eta gardentasuna hobetu beharra daukagu, eta produktibitatea areagotzen lagundu; horretarako, "Osasun-gobernu onerantz" jo behar dugula uste dugu.

"Gobernu onak," sektore publikoari aplikatuta, honako hauek ditu ardatz: etika demokratikoa eta, balio gisa, gardentasuna eta kontu-ematea (accountability), eta interes publikoa bilatzea keaketa efiziente eta profesional baten bidez.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasunaren arloko gobernantza da ekitatezko "osasun-sistema iraungarriak sustatzen dituzten politikak, programak eta jardunbideak definitzea eta ezartzea dagokien eragileek parte hartzea". Horretarako, informazioak muntakoa eta eskuratzeko erraza izan behar du politikarientzat, kudeatzaileentzat, osasun-profesionalentzat eta jendearentzat. Maila guztietan, osasun-gobernu onak gardentasuna, erantzukizuna eta pizgarriak eskatzen ditu, parte-hartzea sustatzeko.

Europako Kontseiluak jada onetsi zituen osasun-sistemen gobernu onerako bere gomendioak. Gomendio horietan esaten da gobernantza on bateko eragin positiboa daukala osasun-sistemaren eginkizun guztietan, hobetu egiten duela haien egikaritzea eta, azken batean, osasun-eremak. Gomendio horien oinarrian dagoen balioen esema kontzeptualak honako osagai hauek hartzen ditu: (a) oinarritzeko balioak: giza eskubideak, zuzenbide estatua eta demokrazia; (b) osasungintzaren sektorearen printzipioak: unibertsaltasuna, ekitatea eta elkartasuna; (c) azken helburuak: gardentasuna, erantzukizuna, irisgarritasuna, parte-hartzea, eraginkortasuna, efizientzia, kalitatea eta segurtasuna.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat aurkez dezan sei hilabeteko epean, ospitaleen, oinarritzeko osasun laguntzako erakundeen eta O-NOZek kudeatutako bestelako erakundeen egitura, antolamendu eta funtzionamenduaren gaineko Erregelamendu-marko bati buruzkoa, zeinetan hurrengoak jasoko baitira osasun zentro eta erakundeei dagokienez, gure ingurune osasun-sistemetako gobernu onaren eta kudeaketa publiko onaren izendatzaile komuna diren aldetik:

1. Kide anitzeko organoak (gobernu batzordeak) O-NOZeko zentro eta erakunde guztietan. Kudeaketa-autonomia handiagoa izate aldera, kontu-ematea eta gardentasuna bermatze aldera, eta zerbitzuen efizientzia eta kalitatea lortzen laguntze aldera, O-NOZen ospitale, oinarritzeko osasun laguntzako zentro eta bestelako erakunde guztietan egonera diran gobernu batzordeak. O-NOZen menpekoak zeinak, kide anitzeko organoak izanera baitira, eta zuzendaritzak edo/eta gerentziak haien aitzinean erantzunen dute. Kide anitzeko organo horiek ziurtaturik eduki behar dute osasun arloko profesionalen eta herritarren parte-hartzea.

2. Zuzendari-kudeatzaile eginkizunaren profesionalizazioa. Nafarroako osasungintzan zuzendaritza-eginkizuna legitimatze aldera, eginkizun horri alderdikeriazko konnotazioak kenduz eta egonkorragoa eta eraginkorragoa eginez, hautapen-prozedura arautuen bidez egiten diran kudeatzaileen eta zuzendaritza karguen izendapenak, deialdi publikoen bidez, lehia bidez eta hautapen-prozesua gardentasunez ebatziz.

3. Aholkularitzako eta parte-hartze profesionalen egiturak indartzea.

Erabakiak hartzean zorrotasun zientifiko eta profesionala hobeki bermatze aldera, osasun arloko profesionalak beren zentroekin inplikatzeko errazte aldera, erabakiak hartzeko prozesua gardentagoa, parte-hartzaileagoa eta demokratikagoa egite aldera eta haren kalitatea hobetze aldera, O-NOZeko zentro guztiek edukiko dituzte batzorde tekniko-asistentzialak eta aholku emateko eta parte-hartze profesionalen batzorde klinikoak, osasun arloko politikak taxutzeko eta erabakiak hartzeko.

4. Gobernu onerako eta kudeaketa onerako tresnak. Erregelamenduak zenbait xedapen jasotzeko dituzte, zentroak behar dituzten muntako informazioa Interneten argitaratzen jarraitzea eta

argitaratze hori hobetzera, gardentasunez jardutera eta kontuak ematera, jardunbide egokien sistema normalizatuaz hornitzera eta arau nahiz prozedura operatibo estandarizatuak eguneraturik biltzera, kalitate maila handia lortzen lagunduko dutenak. Orobat jasoko ditu jarrera-kodeei buruzko xedapenak, zuzendaritzako kideen eta gobernu batzordeko nahiz batzorde tekniko-asistentzialetako kideen arteko interes-gatazkak arau-

tzeko xedapenak, eta batzorde klinikoak eta balizko iruzur eta ustelkeria kasuen prebentzioa eta detekzioa. Gardentasunaren arloko betebeharrak hobetzea eta egikaritzea estandarizatuaren adierazle-sistema bat taxutu dadin exijitzea, O-NOZe-ko laguntza-erakunde mota bakoitzari egokitua.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Nafarroako Gobernuak hezkuntzako mahai sektorialari aurkeztutako enplegu publikoko proposamena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Gobernuak hezkuntzako mahai sektorialari aurkeztutako enplegu publikoko proposamena; izan ere, desoreka onartezina dakar euskaraz eta gaztelaniaz eskainitako lanpostu-kopuruari

dagokionez, eta konparaziozko bidegabekeria eta aukerak gutxitzea dakartza bitarteko irakasle askorentzat eta Nafarroako Foru Komunitatean haur eta lehen hezkuntzako prestakuntza gaztelaniaz jaso duten pertsonentzat”

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen baitio Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkeztutako lan-eskaintza publikoaren deialdi-proposamena erretira dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Hezkuntzako Mahai Sektorialean iragan azaroaren 6an aurkeztutako lan-eskaintza publikoaren deialdi-proposamena erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du euskararen eta gaztelania-

niaren egiazko oreka gordetzen duen lan-eskaintza publiko bat onetsi dezan, deialdiko lanpostuak hizkuntzaz hizkuntza atera ditzan, eta, halaber, oposizioko epaimahaiak ezberdinak izan daitezen hizkuntza bakoitzean eta oposiziotik sortzen diren kontratazio-zerrendak hizkuntzen eta espezialitateen arabera bereziturik egon daitezen”

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bigarren Gazteria Plana abian jartzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Bigarren Gazteria Plana abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentu honetan egindako lehen agerraldian, departamentuak egin beharreko ekintzak direla-eta –zehazki, Gazteriaren Foru Plana dela-eta– adierazi zenuen lehendabiziko planaren jarraipen eta ebaluazio batzordeak deituko zenituela, eta ondoren ekinen zaiola gazteriaren bigarren plana abian jartzeari.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Noizko prestatuko da bigarren plan hori, nola egingen duzue eta nolakoa izanen da parte-hartze prozesua?

Iruñean, 2015eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, prestazioen sisteman sartu diren mendeko moderatuentzako prestazioen balorazioa azkartzea dela-eta Gobernuak dauzkan aurreikuspeni buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, prestazioen sisteman sartu diren mendeko moderatuentzako pres-

tazioen balorazioa azkartzea dela-eta Gobernuak dauzkan aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mende-kotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzeko egutegiak aurreikusten zuen bezala, mende-kotasun moderatua daukatenak 2015eko uztailaren 1etik aitzina sartuta daude Nafarroako

Gobernuaren prestazio-sisteman; azarora arte, halere, Gobernuak betebeharrak ez dio eman lege-erantzunik. Une honetan, 3.000 pertsona baino gehiago daude dagokien prestazioaren balorazioa noiz egingen zaien zain. Gauzak horrela, hauxe da gure galdera:

Gobernuak inolako neurri berezirik aurreikusi al du prestazio-sisteman sartu diren mendeko moderatuentzako prestazio-balorazioa azkartzeko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, osasungintzako langileei euskararen ezagutza dela-eta igorri zaien inkestari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, osasungintzako langileei euskararen ezagutza dela-eta igorri zaien inkestari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasun Departamentua inkesta bat igortzen ari da osasun arloko langile guztiei, euskaraz ote dakiten galdetzeko. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Hori al da Osasuneko kontseilariak bere departamenturako daukan lehentasuna?

Iruñean, 2015eko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak esparru publikoan eta hedabideetan jardunbide egokien kodeak sustatzeko eta horien arloko prestakuntza bultzatzeko, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak esparru publikoan eta hedabideetan jardunbide egokien kodeak sustatzeko eta horien arloko prestakuntza bultzatzeko, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Programa-akordioak, berdintasunari buruzko atalean, honako hau dio 10. puntuan: “Esparru publikoan eta hedabideen esparruan jardunbide egokiak eta haietan

trebatzeko prestakuntza sustatzea, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin”.

Argi dago urte-sasoi honetan esponentzialki igotzen dela hurrei zuzendutako jostailuen gabonetako publizitatea, esparru publikoan eta hedabideen esparruan nagusi izaten diren inplikazio sexistekin. Edonola ere, urtaroak urtaro, uste dugu oraintxe bertan hasita landu beharreko neurri bat dela, Nafarroako Gobernuaren inplikazio aktiboarekin.

Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartuko ditu, hortaz, esparru publikoan eta hedabideen esparruan jardunbide egokiak sustatzeko eta horien arloko prestakuntza bultzatzeko, emakumeen eta gizonen irudi ez-estereotipatua eman dadin?

Iruñean, 2015eko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ingelesezko irakaskuntza-programa irakasten den ikastetxeetan familiek onurei eta zailtasunei buruzko iritzia eman dezaten Hezkuntza Departamentuak banatu duen idazkiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ingelesezko irakaskuntza-programa irakasten den ikastetxeetan familiek onurei eta zailtasunei buruzko iritzia eman dezaten Hezkuntza Departamentuak banatu duen idazkiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Hezkuntza Departamentuak ezagutzen al du ingelesez ikasteko programa irakasten den ikastetxeetako haurrei emandako idazkia –agidanez, Departamentuak berak sustatuta–, familiek programa horren onurei eta zailtasunei buruzko iritzia idatziz eman dezaten?

– Gisa bereko edo antzeko ekimenik egiten ari al da A, B, D eta G ereduak ikastetxeetan?

Corellan, 2015eko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen Eremu Ureztagarriari buruz Kontuen Ganberak egin duen txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzia buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen Eremu Ureztagarriari buruz Kontuen Ganberak egin duen txostena dela-eta Nafarroako Gobernuak duen iritzia buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2015eko irailean ezagutu zen Kontuen Ganberak Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian egindako inbertsioari, espero ziren etekinei eta betetze-mailari buruz egindako txostena.

Iragan azaroaren 4an, Kontuen Ganberaren lehendakariak agerraldia egin zuen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordean, txosten hori aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, honako hau galdetzen diot Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak zer iritzi dauka Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian egindako inbertsioari, espero ziren etekinei eta betetze-

mailari buruz Kontuen Ganberak egindako txostena dela-eta?

Corellan, 2015eko azaroaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “Volkswagenen iruzurra” deiturikoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Volkswagenen iruzurra” deiturikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Volkswagenen iruzurra” deiturikoari buruzko azken albisteak eta auziak hartu duen tamaina ikusita, ibilgailu-eredu ukituak ugaritu direla-eta, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Volkswagenen enplegua eta produkzioa defendatze aldera egindako zuzemenak eta iruzurrak Nafarroan egindako ibilgailu-ereduak ere ukitzen dituela dioten informazioek izan ditzaketen ondorioei buruz Gobernuak eman ditzakeen argibide berriak.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, lan-eskaintza publikoan euskarazko 228 irakasle-lanpostu eta gaztelaniazko 92 deitzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, lan-eskaintza publikoan euskarazko 228 irakasle-lanpostu eta gaztelaniazko 92 deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuaren lan-eskaintza publikoan euskarazko 228 irakasle-lanpostu eskainiko dira, eta soilik 92 gaztelaniazkoak. Zergatik?

Iruñean, 2015eko azaroaren 6an.

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoa, zeinetan eskainiko liratekeen 320 irakasle-lanpostuetatik 228 euskarazkoak bailirateke, bat al dator errealitatearekin eta Nafarroako gizartearen hezkuntza-premiekin?

Iruñean, 2015eko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Sinboloei buruzko Legearen urraketak direla-eta Nafarroako Gobernuak ireki dituen espedientei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Sinboloei buruzko Legearen urraketak direla-eta Nafarroako Gobernuak ireki dituen espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hauek egin ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak zer espediente abiarazi ditu udaletan Sinboloen Legea urratzeagatik?

– Zertan da espediente horien tramitazioa?

– Zure Gobernuak jabetza hartu zuenez geroztik, diru-kantitatearen bat atxiki al da udalen bategandik, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2015eko eta 2016ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen azaroaren 12ko 2/2014 Foru Legeko 7.e.1 artikulua urratzeagatik?

– Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legeari dagokionez, Funtsaren Legeko 7.e.1 artikulua bete eta beteazteko?

Iruñean, 2015eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztaile arte irekitako espedientei buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, udalek Nafarroako Sinboloei buruzko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra ez betetzea dela-eta 2015eko uztaile arte irekitako espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen xedapen iragankor bakarrik sinbolo frankistak kentzea aurreikusten du. Xedapenak dioenez, "Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, bertan aipatutako agintariak Francoren erregimenaren sinbologia kendu eta ordeztu egingen dute. Eraikin historiko artistiko deklaraturikoetan dauden sinboloak kendu eta Vianako Printzea Erakundera bidaliko

dira, haren zaintzapean uzteko, kentzea ezinezkoa denean salbu".

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeak indarra hartu zuenetik 2015eko uztaile arte zenbat espediente ireki dituzte izan diren Nafarroako Gobernu ezberdinek, udalek lege horren xedapen iragankor bakarra ez betetzearen ondorioz?

Tramitatu al dute Nafarroako Gobernu ezberdinek inolako demanda judizialik kausa hori bera dela-eta, lege horrek indarra hartu zuenetik 2015eko uztaile arte?

Iruñean, 2015eko azaroaren 5an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseak ukitutako herrietako alkateekin izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Gobernuaren eledunak adierazi zuen, irailaren 30eko gobernu-bilkuraren osteko prentsaurrekoan,

Gobernuak Nafarroako Ubidea egiteko falta diren faseak aztertze eta geldiarazteko aurreikuspenari buruz ari zelarik, bilerak egiten ari direla proiektuak ukitutako herrietako alkateekin.

Foru parlamentari honek eskatutakoari jarraituz Gobernuak emandako informazioan bertan onartzen da data horretan bi alkaterekin soilik egin zirela bilerak: Murillo el Frutokoarekin eta Leringo alkatearekin eta plataformarekin.

Eledunak adierazitako data hori eta gero, sei bilera egin ziren zenbait udal ordezkarekin eta bi ureztatzaile-erkidegorekin.

Horregatik, honako galdera hauei erantzuteko eskatzen da:

1.- Gobernuak eskatuta, ala udalek eta ureztatzaile-erkidegoek eskatuta egin ziren bilerak?

2.- Zer gai jorratu zen bilera horietako bakoitzean?

3.- Gobernuak zer bilera dauka egiteke? Zer datatan aurreikusten du egiten direla? Nafarroako Ubidearen proiektuak ukitutako zer udalekin eta ureztatzaile-erkidegorekin egingen ditu bilerak?

Corellan, 2015eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Modernaren jardueraren gaineko ebaluazio-txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Volkswagenen iruzurra” deiturikoari buruzko azken albisteak eta auziak hartu duen tamaina ikusita, ibilgailu-eredu ukituak ugaritu direla-eta, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Volkswagenen enplegua eta produkzioa defendatze aldera egindako zuzemenak eta iruzurrak Nafarroan egindako ibilgailu-ereduak ere ukitzen dituela dioten informazioek izan ditzaketen ondorioei buruz Gobernuak eman ditzakeen argibide berriak.

Iruñean, 2015eko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

